

De

editor

AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO ETA ESTATU-KO ESKOLA-KONTSEILUEN XIV. TOPAKETEN ONDORIOEN laburpena. Salamancan, 2003ko maiatzean.

"Inmigrazioa eta hezkuntza. Hezkuntza-komunitatearen esku-hartzea"

1. zatia (Bigarren zatia hurrengo alean argitaratuko da).
Oharra: XIV. Topaketetako eta Nafarroako Eskola-kontseiluak aurkeztutako txostenaren Ondorioen testu osoa gure web orrialdean kontsultatu daiteke: www.pnte.cfnavarra.es/consejo.escolar.navarra

Emigrazioak aldaketa demografiko handiak eragiten ditu. Aldaketa horien ondorioz, Espainia osoaren nahiz Espainia osatzen duten Autonomia Erkidego guztien garapen sozial eta kulturak erronka garrantzitsuei aurre egin behar die. Hori dagokionez, geroz eta garrantzitsuagoa da gizarte zuzen eta solidarioago bat eraikitzea ahalbidetuko duen aniztasun kultural bat onartzea eta orientatzea. Hori dela eta, hobe hezkuntzarako neurri oro ondoko hauek oinarritu beharko da: alde batetik, aukera-berdintasun unibertsal batetan; eta, bestetik, interkulturaltasuna. Interkulturaltasun horretan, kultura desberdinen arteko errespetua eta elkarriketa Giza Eskubideen barruan gauzatzen da.

Argi dago izaera interkultural hori hezkuntzan barne hartzeak ondorio oso garrantzitsuak izango dituela inplikaturako pertsona ororen mentalitatean, eskolaren antolamenduan eta metodologian, eta curriculumean oro har. Baina hori ezingo da lortu beste gizarte-erakundeekin eta Administrazioa sailekin lankidetzan estuan jarduten ez bada. Nabarmendu behar da, halaber, horrela jardunez, eskolak guztiz beteko duela ikaskuntza-, hazkuntza-, eta elkarrekintza-mota ororen toki pribilegiatu izatearen funtzioa. Justizia, berdintasuna, elkarbizitza eta elkartasuna bezalako balioetan hezten lagunduko duen toki bat. Haurrei pertsona guztiek beren eskubide berdinak dituztela ulertarazteko eta betebeharraren zentzua modu

egokian ulertarazteko ikuskerak eta jarrerak barne-hartzen lagunduko dien toki bat.

Hezkuntzak bere protagonismoa berreskuratu behar du gizarte berdino eta demokratikoagoak eraikitzea garrantzian balioen igorpenean. Hezkuntzarako eskubidea oinarritzko eskubide bat da, eta, beraz, egungo Atzerriartasunaren legeak ikasle atzerriarrari bermatu beharko dio edozein diskriminazio-mota debekatuko dela, eta guztien berdintasun soziala babestuko dela.

Kalitatearen legeari dagokionez, Hezkuntza, Kultura eta Kirolen Ministerioari eskatzen diogu bere garapenean ondoko hauek kontuan har ditzala: desberdintasunen konpentsazioa, bestea aberastasun pertsonal eta sozialaren iturri gisa hartzea eta benetako integrazioaren babes irmoa.

Elkarbizitza horren aldeko konpromiso hori gidatu beharko luketen printzipio orokorren artean ondoko hauek daude:

• Gizaki guztien askatasuna eta berdintasuna

Gure zibilizazioarentzako oinarritzko balio bat da, eta obligazio moral eta legal saihestezin bat da horren arabera hezte.

• Aniztasuna onartzea

Berdintasunaren aurretzako errekonozimendua da. Zentzu horretan, aniztasuna onartzea eta desberdintasuna aurkako terminoak dira. Horrela, desberdintasuna, aniztasuna onartzearen ondorio natural izatetik urrun, gure gizarteetan dagoen desoreka ororen emaitza da.

• Interkulturaltasuna

Aniztasun kulturalak elkarrenganako aberastasun-iturri gisa, gizartearentzako aurrerabide gisa eta elkarbizitzarako proiektu komun batetarako ekarpen gisa baloratua izan behar du. Jarduketan ezaugarriak kontuan harturik, nabarmendu beharreko berariazko printzipioen artean ondoko hauek daude:

• Normalizazioa arretan

Zenbait emigrante-talde dituzten beharrak biztanleria osoarentzako dauden zerbitzuen eremutik artatuko dira. Horrela, egitura paraleloak sortzea saihestuko da. Printzipio hori eta beharrezkoak izango liratekeen berariazko zerbitzuak artikulatzea ez dira bateraezinak.

• Globaltasuna

Aurreikusten diren ekintzak jarduketaren eremu guztietatik gauzatu behar dira, biztanleria guztia kontuan hartuz, eta sektore orotara zuzendutako neurriak bilduz.

s

eskolara

• **Parte-hartzea**

Eragile guztiek aktiboki esku hartu behar dute bai planifikazio-prozesuan eta baita jarduketan garapenean ere. Horrela, horiek eragindako talde guztien, eta bereziki esku-hartzearen xede den helburuaren, adostasunaren emaitza izango dira.

• **Koordinazioa**

Dauden baliabideak optimizatzeko, esku-hartzearen eragin-kortasuna areagotzeko eta sortzen daazten behar berrietarako erantzunak dituzteko helburuarekin, eragile desberdinek gautzatzen dituzten jarduketan koordinazioerako eta osagarritasunerako bideak ezarri behar dira.

• **Indibidualizazioa**

Escola-komunitate edo -eremu zehatz bakoitzaren berariazko behar eta bereizitasunetara doitu eta zehaztu beharko da jarduketa oro.

• **Inplikazioa eta konpromisoa**

Jarduketa horietan beharrezkoa da Administrazio guztien, tokiko administrazioan hala nola eragile sozialen, elkarteen eta gobernu kanpoko erakundeen konpromisoa eta inplikazioa.

Atal honekin amaitu aurretik mota horretako arazo bati aurre egiteko garatzen den guztia baldintzatzen duten bi alderdi azpimarratzea komeni da. Lehenik eta behin, migrazio-fluxu handietatik eratorritako aldaketak, eta kultura-aniztasuna, globalki gizarte osoa eragiten duen arazo gisa hartu behar da. Hori horrela, ezaugarri bereko erantzun bat eskatzen du. Hezkuntzak, eta are gutxiago eskola-eremuan, ezin du bere kabuz inmigrazioaren eta kultura-aniztasunaren fenomenora lotutako arazo konplexua konpondu. Hori dela eta, eragile sozial esanguratsu guztien inplikazioa eta koordinazioa behar da. Bigarrenik, gizarteko arduradunek biztanleria-oreka bat lortzeko eta bazterkeria-poltsak eratzea saihesteko esfortzua egin behar dute. Kasu horietan, gizarte-arduradunek egin behar duten lehenengo gauza da arazoak sortzea saihestea, edo, gutxienez, horiek neurri larriak izatera iristea saihestea.

Politika orokorrak eta hezkuntza-politikak.

• Interkulturalitate sozialaren fenomenoak, eta horrek eskola-eremuan dituen inplikazioek, eskala orokorrera mantentzen den politikaren eta bere osagai ekonomiko eta sozialen eragin sakona dute. Ondorioz, herri administrazioek adostutako ekintza bat ezartzen da arazoari heltzeko helburuarekin. Izan ere, hezkuntza-ikuspegia bakarrik hartzen bada kontuan, arazoari tratamendu partziala besterik ez zaio ematen.

• Garrantzitsua da hezkuntza-administrazioek, kooperazioan, ondorengo hauek bezalako alderdiak jasoko dituen araudi bat ezartzea:

- Haur etorkinaren eskola-baldintzen aurretiazko ebaluazioa eta harrera.
- Harrera- edo ebaluazio-ekipoen eta eskolaratze-batzordeen eskumenak.
- Zentroek onartu behar dituzten obligazioak.
- Eskola-adineko ikasleriari eta, kasuan kasu, helduei eskaini behar zaizkien hezkuntza-arretako ereduak.

• Azterketa tekniko egokia egin ondoren, gerta daitezkeen zalantza ohikoenak (hezkuntzarako oinarritzko eskubidearen bermea, matrikulazioa, espedienteen garraioa, eskolartasun-liburuen eskaera, absentismoa, sustapen-irizpideak, etab.) argituko dituzten jarraibideak edo gomendioak ematea eta Hezkuntza-zentroetara eta horiek ikuskapen-zerbitzuetara igortzea komeni da.

• Ikasleria atzerritara zenbait zentroetan kontzentratzea saihestuko duten irizpide eta arau tinkoak ezarri, eta haur etorkinak hartzeko zentroetan ratioak murriztearen aldeko neurriak sustatu behar dira.

• Ikasketa eta titulu atzerritarrak homologatzeko eta balioztatze prozedurak arautu behar dira, egun baino azkarrago gerta dadin. Ikasle horiek, beren adina kontuan hartu gabe, talde edo mailatara atxikitze unean malgutasunez jardutea komeni da.

• Aurretik Autonomia Erkidegoen eta Hezkuntza, Kultura eta Kirolen Ministerioaren arteko aurretiazko akordioarekin, etorkinen hezkuntza-arreta bultzatuko duen protokolo komun bat ezartzea komeni da. Horrela, etorkinak lekuz aldatu izanak ez du suposatuko bere hezkuntza-prozesuaren etenaldi larririk.

Informazioa, dibulgazioa eta sentsibilizazioa.

• Familiei eta etorkin-multzo desberdinei beren eskura dituzten hezkuntza-baliabideei buruz informatu eta sentsibilizatu behar zaie. Burutu daitezkeen jardueren artean ondoko hauek daude:

- Biztanleria etorkinari bere eskuetan dituen baliabideei buruz informatzea (beka eta ikasketa-laguntzetarako deialdiak, konpentsaziozko arretarako neurriak), ikasle-en gurasoen elkarrekin, udalekin, irabazi asmorik gabeko elkarrekin, eragile sozialekin eta abarrekin lan-kidetzan.
- Hizkuntza desberdinetako liburuxkak egitea eta banatzea, informazioa eguneratuarekin, etorkinek eskaintzen diren hezkuntza-urrats, -maila eta -ibilbide desberdinetan dituzten aukerak ezagutu ditzaten.
- Etorkin-elkarrekin, bizilagun-elkarrekin, hezkuntzako profesionalen eta biztanleria etorkinarekin lan egiten duten erakunde eta elkarte guzti horien artean laguntza-mekanismoak buruz informatzea.
- Eskolaratzerako beharrezkoak diren eskaera-orri desberdinak egokitzea.
- Eskolaurreko Hezkuntzako eskolaratze eraginkor eta egokira zuzendutako ekintzak lehenestea, beharrezkoak diren laguntzak ezarritik.

• Autonomia Erkidegoetako Sail desberdinen arteko koordinazioa sustatzea, etorkinaren harrera bultzatzeko eta sarbide errazeko informazio-guneak eratzeak. Hori guztia hezkuntza-sistema berriaren ezaugarriak eta funtzionamendua, gure gizarteko eskubideak eta betebeharrak, eta gure kulturaren oinarritzko ezaugarriak, hala nola osasunari buruzko informazioa, lana eta abar ezagutarazteko helburuarekin.

• Etorkinen artean sentsibilizazio-kanpainak garatzea, haurrak Eskolaurreko Hezkuntza eskolatu ditzaten.

Lehenengo urteetan hezkuntza-arreta oso garrantzitsua denez, familia etorkinen artean sentsibilizazio-kanpainak garatuko dira horiek beren haurrak Eskolaurreko Hezkuntzatik eskolatzeko eska dezaten, batez ere familia kalte-tuenetako ikasleak

direnean. Nesken eskolatzea azpimarratu behar da, pertsona horiek nahitaezko hezkuntzara berdintasun-baldintzetan sartu ahal izateko zenbait gabezia konpentsatzeko helburuarekin.

- Eskolatze-batzordeek, gurasoek ikastetxea aukeratzeko duten eskubidea errespetatuz, eta familien eta ikastetxeen parte-hartzearekin eta adostasunarekin, dagoen eskaria bideratu beharko lukete, ikasle etorkinak zenbait ikastetxeetan edo sare bakar batetan kontzentratzea saihesteko. Ikasleria osoaren integrazio eskolarra, soziala eta kulturala lortzea izan beharko du prozesu osoaren funtsezko helburua.

- Eskolaratze-batzordeak aktibo mantendu beharko dira ikastaro osoan zehar, ikasleria etorkinaren eskolatze orekatua lortzeko, funts publikoekin finantzaturako ikastetxe guztien artean, eta eskolatzearen kontrola eta jarraipena bermatzeko, horretarako sortutako arauetan ezarritako irizpideekin, bereziki hori ohiko epetik kanpo gertatzen denean.

- Batzordeak igortzen dituen ikasle etorkin guztiak onartzeko derrigortasuna ezarriko da funts publikoez finantzaturako ikastetxe guztietan.

- Beharrezkoa da ikastetxe bakoitzarentzako gutxieneko eta gehieneko kupo bat ezartzea. Horri esker, zentro horietan ikasle horientzako plaza kopuru nahikoa gordeko da (gutxienekoa), eta ikasle etorkinak ikastetxe batzuetan bakarrik metatzea saihestuko da (gehienekoa). Muga horiek ikastetxe-ko ikasle-kopuruari dagozkion portzentajeetan adierazi beharko dira.

- Eskolatze-batzordeek muga horiek zuhurtziaz erabili behar dituzte, kasu guztietan ere familiek beren seme-alaben ikastetxea aukeratzeko duten askatasuna errespetatuz, etxebizitzatik gertu dauden ikastetxeak aukeratzeko askatasuna.... Agian, ikasleren bat ikastetxe batetara gehiegi lekualdatu beharrezkoak aurkitzen dira, eta, ondorioz, integrazioaren oinarritzko helburua arriskuan jartzen da. Kasu horietan beharrezkoa da eskolatze berriaren onarpena ahalbidetzeko neurriak aurreikustea.

- Inmigratziotik datozen ikasleek arreta berezia behar dute, eta, batzuetan, baita arreta berezia ere. Ikasle horiek ikastetxe desberdinen artean banatzeko beharrak, era berean, bitarteko pertsonal eta instrumentalak, hala nola instalazioak banatzea beharrezko bilakatzen du. Egokiena da funts publikoekin finantzaturako ikastetxe guztiek ekarpen bera egitea lan hain garrantzitsu eta gogorra gauzatzean. Betiere indarrean dagoen araudian hori dagokionez ezartzen dena errespetatuz, eta egin behar den ikastetxe-proiektuan ikasleria horrekin garatu beharreko berariazko ekintzak jasoz.

- Beste Administrazioekin lankidetzan eskola-absentismoa kontrolatzeko eta desagerrarazteko programak diseinatzea eta garatzea. Izan ere, ikasle horiek, familiaren lana (sasoi-kako langileak nekazar kanpainako garaian, edo antzeko beste edozeinetan) edo osasun-arazoak direla eta, askotan ezin duten erregulari joan ikastetxera. Eskolaren eta gizarte-zerbitzu desberdinen arteko lankidetzak koordinatzea, utziak edo esplotatuak izateko arriskuan dauden etorkin adingabeak artatzeko xedearekin.

- Eskola-absentismoaren kontrolean arreta jarri behar dutenak haurren tutoreak dira. Arreta hori, batez ere, nesketan jarri behar da. Izan ere, zenbait kulturatako ikasle etorkinen familia batzuetan, gehiago bidaltzen da ikastetxera mutila neska baino.

- Ikastetxe batetan matrikulaturako ikasleria etorkina, urrats

horretan behintzat, bertan egon dadin zaintzea, lekualdaketak modu arrazoituan justifikatzen diren kasuetan saibu.

- Etorkinentzako eta, oro har, gizarteratzeko arazoak dituzten ikasleentzako udal eremuko harrera- eta eskolatze-ekipoak sortzea gomendatzen da. Ekipo horiek ondoko hauek arduratuko lirarteke: eskolatze prozesu osoa, diagnosia, informazioa, ikastetxe-mota gomendatzea,...

- Ikastetxeetan harrera-, arreta- eta jarraipen-planak sustatzea eta bultzatzea, arreta berezia jarritz ikastaroaren hasieran nahiz ikastaroan zehar eskolatzen diren etorkinetan.



"Alfonso X el Sabio" ikastetxea

Gauzatu beharreko ekintzen artean ondoko hauek daude:

- Ikastetxeek garatzen dituzten plan orokorren barruan, ikastetxean sartzen diren etorkinak artatzeko berariazko neurriak bultzatzea. Bereizki ikastaroan zehar sartzen diren horiek artatzeko neurriak sustatuko dira, eskola-eremuan azkarrago koka daitezzen.
- Ikasleria berriaren beharrei erantzunak bilatzeko xedearekin, tutoretza-ekintzako planak aberastea.
- Familiei eskolaren funtzionamenduari, hezkuntza-prozesuari eta gainerako elementu interesgarriei buruz informazioa eta orientazioa.
- Ikasleria etorkina integratzeko prozesua hobetzeko neurriak, hala nola antolamenduetan lotutako neurria sustatzea eta aplikatzea.
- Derrigorrezko hezkuntza amaitzetik gertu dauden adinetako ikasleen kasuan, eta eskolatze-defizit larriak dituzten horien kasuan, xedea eskola-integrazioa lortzea ez ezik, gizarteratzea lortzea dela ulertu behar da. Hori dela eta, helburu hori duten berariazko programak aktibatu behar dira. Programa horietan lehentasuna dute hizkuntzen eta gai instrumentalen berariazko ikaskuntzak.
- Ikasle atzerriarraren integrazioa erraztu dezaketen udal nahiz autonomia-eremuko, nahiz gizarte-ekimeneko alorreko gizarte-zerbitzu guztiak inplikatzeko eta koordinatzea.

- Bat-batean udalerri batetara iristen diren talde sozial edo etnikoetatik datozen eta ikastetxe batetan plaza eskatzen duten ikasleak eskolatu ahal izateko, ikasle horien hezkuntza-beharrak atzemango dituen eta gauzatu beharko den eskolatze-mota, horretarako baldintzak, beharko dituen bitartekoak eta abar adieraziko dituen aurretiazko ebaluazio bat egitea proposatzen da.

Ikasgela Gaur

San Adriango "ALFONSO X EL SABIO" HLHIP: 25. URTEURRENAREN OSPAKI-ZUNA.

"ALFONSO X EL SABIO" ikastetxea San Adrianen kokatutako haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko bat da. San Adriango familia gehien erreferentzia izan den eta izaten jarraitzen duen ikastetxe horrek bere 25. urteurrena bete du. San Adriango ikastetxea irekitzea behin betiko irtenbidea izan zen lehen kokaleku desberdinetan banatuta zeuden ikasle guztiak eskolatu ahal izateko.

• Egitaraua

Gertaera horri ahalik eta garrantzi gehien emateko helburuarekin, maiatzaren 13tik 18ra bitarteko Egitarau bat antolatu zen.

Maiatzaren 13an **25. urteurrena ospatzeko ekitaldia** garatu zen. Plaka oroigarri bat agertu zen. Bertan zeuden Jesus Angel Mendaza alkate jauna; Santiago Arellano jauna; Hezkuntzako Zuzendari Orokorra; eta Juan Luis Muñoz jaunak, Herminda Rubio andreak eta Maria Julia Sainz andreak osatutako Zuzendaritza-taldea. Ekitaldi horretan ondorengo hauek parte hartzea nahi izan zen: lehenengo irakasle-klastroa, lehenengo ikasle-promozioa, lehenengo Eskola-kontseilua (zuzendaritza-batzordea deiturikoa), 25 urte horietako alkate guztiak, egungo klastroa eta Eskola-kontseilua, Gurasoen Elkarte ordezkaritza bat, eta eskola-komunitateko hainbat eta hainbat elkarte eta erakunde. Ekitaldiko une hunkigarrienetako bat ikastetxearekin lotutako hainbat pertsonari egin zitzaion omenaldia izan zen: lehenengo atezainaren alargunari, hots, Jesus M^a Lopezen alargunari; ikas-



"Alfonso X el Sabio" Ikastetxea

tetxeko lehenengo zuzendariari, hots, Paco Gimenori; San Adriango Udalari; eta Juan Cruz Cigudosa zientzialariari, ikastetxeko lehenengo promozioiko ikasle bikain gisa, ikerketako sari nazionala lortu zuelako.

Maiatzaren 14a **Irakasleriaren eta Irakasle ez diren langileen eguna** izan zen. Eskerrak emateko meza bat egin zen, eta, ondoren, azken 25 urteetan ikastetxean lan egin zuten guztiak biltzeko helburua zen bazkari bat antolatu zen.

Maiatzaren 15ean **ikaslearen eguna** ospatu zen.



"Alfonso X el Sabio" Ikastetxea

Egun horretan, goizean, ipuin kontalari bat egon zen txikienentzat, eta "Erdi Aroko Ginkana" Hirugarren zikloko ikasleentzat. Ondoren herri-hamaiketako egon zen guztientzat. Arratsaldean Erdi Aroan girotutako pelikula bat proiektatu zen.

Ostiralean, maiatzaren 16an, **Musikaren eguna** ospatu zen. Jesus Laguna jauna, Hezkuntzako Kontseilaria, bertaratu zen. **"Va de Cine"** izeneko kontzertuan **ikasle ohien** eta **Udal Bandaren** emanaldi bikain batez gozatu ahal izan zen.

Maiatzaren 17a **Kirolaren eguna** ospatu zen. Futboleko eta saskibaloiko "25. urteurrena" txapelketa jokatu zen. Futboleko hastapen eta kimu mailak jokatu zuten, eta saskibaloian, berriz, benjamin mailako neskek. Egun horretako ilunabarrean Familiaren Festari ekin zitzaion, herri-txistorra-jate eta dantzaldi batekin.

Maiatzaren 18an, igandean, eta ikastetxeko Gurasoen antolatuta, **Familiaren eguna** ospatu zen. Ekitaldi ugari ospatu ziren hezkuntza-komunitate osoari zuzenduta: meza, gimnasia erritmikoa, AMIFE-San Adrianekin lankidetzan antolatutako gurgildun aulki gaineko dantza, ardo espainiarra bertarutako ororentzat, txapelketa anitzak (xakea eta txintxoi-jokoa), puzgarriak eta festa-amaiera.

• Historia apur bat.

Hasiera batetan, ikastetxean 16 maisuz osatutako langileria bat zuen. Urteik urtera, ikastetxea behar berrietara eta planteamendu berrietara moldatzen joan da, nahiz eta beti gorde izan duen bere izaera hertsiki hezitzaile eta trebatzailea.

Egun, ikastetxeak 14 maisu orokor eta haur hezkuntzako beste 8 maisu ditu. Horiei alor desberdinetan espezializatutakoak gehitu behar zaizkie (Ingelesa, gorputz-hezkuntza, musika, erlijioa eta euskara). Espezialitate horiek geroz eta garrantzi handiagoa izan dute 25 urte hauetan zehar. Gaur egun, ingelesa eta musika hiru urteetatik irakasten hasten da. Irakaskuntza horiek haurrekin batera doaz eskolatzeko osoan zehar. Hezkuntza-eskaintza hori guztia orientazio psikopedagogikoko zerbitzu batekin eta pedagogia terapeutikoko eta gutxiengo soziokulturalen pedagogiako irakasleekin osatzen da. Ikastetxeak, halaber, atezain bat eta administrari bat ditu.

Azken urteetan zehar, Magrebeko eta Hegoamerikako

Ikasgela Gaur

ikasleak iristearekin batera, aldaketa garrantzitsu bat gauzatu da biztanlerian, eta, ondorioz, ikastetxera doan ikaslerian. Hori dela eta, ondoko xede hau zehaztu behar izan da:

"Ikastetxearen giro orokorra zaintzea, kultura anitzeko, elkarrekiko ezagutzako eta desberdintasunen errespetuko elkarbizitza-eredu bat garatuz, hala nola pertsona- eta hezkuntza-harremanetako oinarritzko alderdiak garatzeko jarduketak positiboak proposatuz, betiere eskola-ingurunearen barruan posible direnak".

25 urte hauetan zehar jarraitu den ildo garrantzitsuetako bat irakurketa sustatzea izan da. Hori dela eta, egun, ikastetxeak, liburuekiko eta kulturarekiko interesa pizten duten jarduerak garatzea ahalbidetzen duen liburutegi bat du.

Egungo gizarteak komunikaziorako eta informaziorako teknika modernoenen ezagutza eta erabilera eskatzen du. Azken urte hauetan zehar, ikastetxea baliabide informatikoez nahiz ikus-entzunezko baliabideez hornitu da, eta, egun, erreminta horiek ikastetxearen irakasle-praktikan integratzea da erronka, Internetek informazio-iturri gisa eskaintzen dituen aukera zabalak ahanzi gabe.

San Adriango irakaskuntza publikoak, haur eta lehen hezkuntzako urratsetan, komunitatearen garapenean duen funtzio garrantzitsua bere gain hartzen du. Horretarako, ikastetxeak erakundeen lankidetzak, familien parte-hartzea eta irakasleriaren lana eta inplikazioa ditu bere esku. Beren helburua da, ikasle onak hezteaz gain, pertsona arduradun eta tolerantetarako trebatzea. Horrekin guztiarekin, kalitateko hezkuntzaren etorkizuna bermatu egiten da datozen belaunaldiarentzat.


Iruñako "EL MOLINO", Hezkuntza Bereziko Ikastetxea: 25. URTEURRENAREN OSPAKIZUNA.

"El Molino" ikastetxea Iruñan, Vergel kaleko 2.ean, Magdalenako Zubiaren ondoan, kokatzen den hezkuntza bereziko zentro bat da. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Sailarekin hitzartutako ikastetxe pribatu bat da: 948 224200.

1978ko maiatzaren 3an ekin zion bere ibilbideari,



"El Molino" Ikastetxea



"El Molino" Ikastetxea

"Ciganda Ferrer" Fundazioaren babesarekin. Fundazio hori 1976. urtean sortu zuten Gerardo Ramón eta Tomás Ciganda y Ferrer anaiak, **ezgaitasun intelektualak duten pertsonen garapena eta sustapena funtsezko helburu eta xede zutela**. Hori dela eta, Molino de Ciganda instalazioetan "El Molino" Lanbide Hezkuntza Bereziko ikastetxea sortu zen. Egun, Lanbide Hezkuntza Bereziko ikastetxea Patronatu-batzordearen zuzendaritzapean dago.

Ikastetxea 14 urteko 14 ikasleekin eta 4 irakasleekin hasi zen: psikologo bat, gizarte-langile bat eta bi lantegi-irakasle. Egun 50 ikasle baino gehiago ditu, 12 eta 20 urte bitartekoak. 25 urte horietan zehar ikastetxean 368 ikasle ikasi dute. 35 irakasle, psikologo batek, bi gizarte langilek eta sektore desberdinetako 41 profesionalak beren jarduera profesionala garatu duten ikastetxean.

Azpitarragarria da hezkuntza-sistemak jasan dituen aldaketetara, hala nola gizarte eskarieretara moldatzen joan den **ikastetxe** bat dela. **Lanbide Hezkuntza Bereziko** ikastetxe gisa jaio zen, eta, ondoren, LOGSEren, LH **Zereginen Ikaskuntzarako** ikastetxe bilakatu zen.

Eskaintzen den irakaskuntza kalitatezko irakaskuntza bat da. Pertsona bakoitzaren berezitasuna kontuan hartuz. Banakako jarraipena egiten da, betiere ikasle bakoitzaren garapenarekin lotutako beharretara doituz. Ikaslea pertsona indibidual gisa nahiz multzo (hezkuntza-taldea, familiarra, soziala, lanekoa,...) batetako partaide gisa hartzen da. Filosofia barne-hartzailea du.

Hezkuntza-programak:

- ONH: Oinarritzko Nahitaezko Hezkuntza, 12 eta 16 urte bitarteko ikasleentzat.
- BHI programa: Bizitza Heldura Iragateko programa, 17tik 20 urtera bitarteko ikasleentzat.
- Hastapen Profesional Bereziko Programa (HPBP), 17 eta 20 urte bitarteko ikasleentzat (Zura/Etxea; Elektrizitatea/Ehunak; Nekazaritza/ Zeramika)

Horrez gain, ondoko zerbitzu hauek ere eskaintzen ditu:

Psikologia, Gizarte-lana, Logopedia, Aisialdia eta Denbora Librea, "El Molino" Kirol Elkarte (Kirola), OFB (Orientazio Familiar Bereziko zentroa), Jangela eta Garraioa.

Ikasgela Gaur



"M^a Inmaculada" Ikastetxea

IRUÑAKO "M^a INMACULADA" LANBIDE-HEZIKETAKO IKASTETXEA

NOR GARA?

M^a Inmaculadako mojek zuzentzen dugun hezkuntza-komunitate bat gara. Guk gure fundatzaile izandakoaren, Vicenta M^a Lopez y Vicuñaren, ekimenari jarraitzen diogu. Bere jarduketarik irizpideak ziren HARRERA EMATEA, IRAKASTEA, ENTRETENITZEA ETA FEDEAN HEZTEA. Eta oraindik ere horiek dira gure egunerokoan indarrean jarraitzen dutenak. Hasieratik, fundatzaileak pertsonaren OSOKO trebakuntza sustatzen zuen jokaera desegokiei AURREA HARTZEKO modu gisa. Horrela, lanerako presta-tzen ari diren gazteekin gauzatzen dugu gure lan-hezitzailea, beren ahalmenak guztiz garatu ditzaten lagunduz, beren erantzukizuna onartzen lagunduz, izpiritu kritikoa sustatuz eta, horrela, beren erabakiak hartzeko ahalbidetuz.

NOLA EGITEN DUGU LAN?

Lanbide-heziketako zentro bat gara, eta erdi-mailan nahiz goi-mailan titulu bat eskuratu ahal izateko, gure ikasleek lan-zentroetako (praktikak enpresetan) trebakuntza-modulu bat egin behar dute. Modulu hori gairiditze-ko garrantzitsua da ikastetxean ikasitako ezagutza teori-koak erakustea, baina horrez gain, ikasleek beren lana garatzeko jarrera egokia eduki behar dute. Horregatik, teknikaren aldetik nahiz gizatasunaren aldetik profesional on bilakatuko dituen trebakuntza bat lortu nahi dugu. Jarrerak eta balioek duten garrantzia lan-munduak eta, zehazki, enpresek berresten dute. Izan ere, enpresa horiek, gure ikastetxearekin sinatuta dituzten hitzarmenei esker, TLZ moduluarekin (Trebakuntza Lan Zentroetan) hezkuntza-prestakuntza osatzen laguntzen dute. Enpresa horiek funtsezko zat jotzen dute ikasleek lantokian egoten jakitea eta izaten jakitea.

Planteamendu hori gure hezkuntza-ekintza osoaren oinarrian dago. Planteamendu horrez gain, "Eskola Osasungarria" izeneko berariazko proiektu bat dugu ezarrita. Proiektu horren bidez berariazko jarduerak eta berariazkoak ez diren jarduerak gauzatzen ditugu. Berariazkoak ez diren jarduerak erabaki ahal izateko ahalmen pertsonalak, gaitasunak eta baliabideak indartu nahi dituzte, berariazko jarduerak, berriz, osasunarekin lotutako gaiak lantzen ditu.

Proiektu honen bidez OSEES (Osasuna sustatzeko Eskola Europarren Sarea) sarean sartu gara.

NOLAKOA DA GURE IKASTETXEA?

Eraikinean, instalazioak ikasle-egoitza batekin banatzen ditugu.

Ikastetxeak ondoko instalazio hauek ditu:

Idazkaritza, zuzendaritza, irakasle-gela, orientaziorako bulegoa, liburutegia, laborategia, informatika- eta meka-nografia-gelak, ikus-entzunezko aretoa, oratorioa, aretoa (gimnasioa), teoria-gelak eta lokal osagarriak, komunak. Ikastetxea 8.00etatik 14.00etara bitartean, eta 16.00etatik 22.00etara dago irekita.

ZEIN DA GURE HEZKUNTZA-ESKAITZA?

- Hastapen Profesionaleko programak:

- Egoitzarako eta etxetik etxeko laguntzarako laguntzailea
- Gradu ertaineko Heziketa-zikloak
- Erizaintzako Zainketa laguntzaileak
- Farmazia Teknikaria
- Administrazio-kudeaketa egunez
- Administrazio-kudeaketa gabez (eskaintza partziala)
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko probarako prestakuntza-ikastaroa
- Gizarte-zientzien eta Osasun-zientzien modalitateak.
- Goi-mailako heziketa-zikloak
- Osasun-dokumentazioa
- Anatomia patologikoa eta zitologia
- Garraioaren kudeaketa

MARISTAK IRUÑAN EGOTEAREN MENDEURRENA OSPATU ZUEN SANTA MARIA LA REAL IKASTETXEA.

"1903ko martxoaren 15ean lau anaiek Nafarrerria kale-ko lehenengo pisua okupatu zuten, eta bertan bizi izan ziren txirotasun osoan 15 egunetan zehar. Apezpiku jaunak onetsita instalatu ziren bertan, 4 edo 6 anaiez baka-rrik osatu litekeen Merkataritzaren eta Hizkuntzen Akademia bat irekitzeko xedearekin. Horrela dago jasota onepesen-dokumentuan. Martxoaren 19an Gobernadore Zibil jaunari Probintziako Komunitateen erregistroan izena emateko eskaera aurkeztu zitzaion."

Lerro xume horiek Anai Maristek Erroman duten Artxibategi Nagusian dagoen dokumentu bati dagozkie. Iruñako Maristen historiaren hasiera ziurtatzen dute. Mendeurrena ospatzen dugu, baina ez gaude ajetsu. Egoera horri historiaz ikasteko helburuarekin aurre egin diogu. Izan ere, dudarik gabe, historia hori oso aberatsa da mantendu beharko genituen abilezian eta saihestu beharko genituen akatsetan. Nondik gatozen berrikusi behar dugu, nora goazen hobeto jakiteko. Hori da hezkuntza-komunitatearen benetako beharra.

Hezkuntza-bizitza maristaren aniztasuna dela eta, mendeurrenaren ospakizuna helburu anitzeko ekitaldiez (batzuk jadanik ospatu dira, besteak oraindik ospatzeko daude) osatuko da, Hezkuntzaren etorkizunari buruzko bi mahaingururekin hasiko gara. Mahainguru horietan hizlari bikainak izango ditugu. Beraiei eskatu genien kultura ani-

kasge

itzeko mundu batetan hezitzaile kristau gisa izango genuen etorkizunari buruz hausnartzen eta argitzen laguntzea. Aldi berean, beste ekitaldien artean, Mendeurreneko Kirol-jokoak, Kartelen Lehiaketa, Hezkuntza-berrikuntzaren Lehiaketa, Erakusketa Historikoa, eta paperezko euskarriak nahiz euskarri informatikoan material historikoak sortzea daude. Udaberrian, gure Katedraleko ospakizun eukaristikoa, eskola-festak, eta Anaien omenaldi gisa antolatutako bazkari-jendetsu bat ospatu ziren.


Ikasturte berriak lehenengo hiru hilabeteak amaituko du ekitaldien aurreikuspenarekin. Jadanik ospatu da Xabi Iriarte Memoriala, urtero Maristak Saskibaloiklubak antolatzen duena, eta aurten mendeurrenara lotuta egon dena. Aurretik zenbait erronka garrantzitsu ditugu, eta horietatik bi nabarmendu ditzakegu. Lehendabizi, obra marista gineatarrarekiko anaitasuna. Horrekin adierazi nahi dugu gure historiak, asko pozten bagaitu ere, ez duela nahikoa zentzurik ez badugu jarraitzen fundazioko karismatik. Eta, bigarrenik, Hezitzaile Maristaren Jardunaldia. Hezitzaile Maristen

ohiko bilkura da, eta aurten hezkuntzaren berrikuntzari buruzkoa izan da. Era berean, Hezkuntza-berrikuntzako Lehiaketako sarien banaketa egiteko unea izan da.

Nafarroako Eskola-kontseiluaren gonbidapen hau aprobetxatzen dugu mendeurren honetara arte bizitza hezteko lanera xedatzea merezi duela ustez iristea ahalbidetu duten pertsona eta erakunde guztiei eskerrak emateko. Guztiei, eskerrik asko eta ikasturte zoriontsua izan.

Argazki-oina:

Mendeurren-ekitaldiei hasiera ematen zien 1. mahainguruko parte-hartzaileak. Gaia: "Eskola katolikoa XXI. Mendean. Erronkak eta erantzun-ildoak": Jose M^o Mardones jauna (CSIC eta antzinako irakaslea), Jose Luis Santamaria (Espainiako Konferentzia Maristako Idazkari Orokorra), Fernando Sebastian jauna (Iruñako Apezpikua Artzapezpikua), Santiago Arellano jauna (Hezkuntzako zuzendari Orokorra) eta Santos Viñanueva jauna (moderatzailea).



Mendeurren-ekitaldiei hasiera ematen zien 1. mahainguruko parte-hartzaileak. Gaia: "Eskola katolikoa XXI. Mendean. Erronkak eta erantzun-ildoak": Jose M^o Mardones jauna (CSIC eta antzinako irakaslea), Jose Luis Santamaria (Espainiako Konferentzia Maristako Idazkari Orokorra), Fernando Sebastian jauna (Iruñako Apezpikua Artzapezpikua), Santiago Arellano jauna (Hezkuntzako zuzendari Orokorra) eta Santos Viñanueva jauna (moderatzailea).

orod

"HOBKUNTZARAKO PLANAK ETA PROIEKTUAK NAFARROAKO IKASTETXEETAN, 2002-2003 IKASTURTEARI" BURUZKO 1/2003 IRIZPENAREN LABURPENA, NAFARROAKO ESKOLA-KONTSEILUAREN BERAREN EKIMENEZ.

Nafarroako Kontseiluak, bere ekimenez, "Hobekuntzarako planak eta proiektuak Nafarroako Ikastetxeetan, 2002-2003 ikasturteari" buruzko 1/2003 Irizpena eman zuen. Irizpen horrekin, Kontseiluak ikastetxeek Hezkuntza Sailean ikastetxeetan kalitatea kudeatzeko ereduak buruz aurkeztutako txostenak aztertu ditu. Ondoko helburu hauek bete nahi izan dira:

1. Nafarroako ikastetxe desberdinetan ezartzen ari den errealitatea ezagutzea, gaiaren egoera bat prestatzea.
2. Gaiaren egoera hori ezagutaraztea; horren laburpen bat prestatzea.

3. Gure Komunitateak egun duen egoerari buruz balorazio batzuk adierazte.

4. Proposamen batzuk egitea.

Ikastetxe horiek gai horri dagokionez bizi duten egoerari buruzko ondorio nagusiak Ikuskaritza Teknikoko eta Zerbitzueta Zerbitzuaren "Ikastetxeen ebaluazioa eta kalitatea hezkuntzan" alorrak gauzatutako azterketatik eratorritzen dira. Azterketa hori 2001/2002 ikasturteko lehenengo eta bigarren hiru hilabeteetan egin zen, hezkuntza-sare osoan. Horrekin, ikastetxeetako hezkuntza-kalitatea ziurtatzea ez ezik, "Kalitatearen Kudeaketaren" ereduak hasi zen ikastetxe-kopurua eta horien ezarpen-maila ezagutu nahi izan da.

Lan horretarako araudi-erreferentzia gisa, jadanik LODen (1985) jasotzen zen irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntza konstantea eta progresiboari buruzko kezka jasotzen zen. Hori LOGSEko (1990) 55. artikuluan eta ondo-

rengoetan adierazita dago. Botere publikoei agintzen zaie irakaskuntzaren kalitatea eta hobekuntza sustatzen duten faktore guztiei lehentasuna ematea. Faktore horiek LOPEGek (1995) 29-3. artikuluan zehazten ditu. Hurrenkera horretan, baliabide-multzoko bat zehazten joan da, ikastetxeen kudeaketaren kalitatearen hobekuntza 1990. urteko aipatutako legean formulatutako helburuak lortzeko funtsezko pieza bat den neurrian. Hori horrela, ikastetxeen zuzendaritza Orokorraren 1998ko maiatzaren 27ko ebazpenak kalitatea kudeatzeko eredu europar bat ezartzeko jarraibideak ematen ditu. Horri esker, Nafarroako lehen-hezkuntzako sei ikastetxe eta hamar institutu 97-98 ikasturtean beren prozesuak eta emaitzak etengabe hobetzera zuzendutako autoebaluaketa-lanetan hasi ziren.

Azterketaren erreferentzia-unean, Nafarroako Bigarren Mailako Institutuen bi heren moduren batera kalitate-sistemak ezartzeko prozesuetan inplikaturik zeuden. Hitzartutako ikastetxeen laurden bat zegoen ezarpen-prozesuan murgilduta. Ikastetxe horien %80 hiri-ingurunean kokatzen dira, tamaina handikoak dira, eta irakaslerian egonkortasuna dute. Hitzartutako sarean izan ezik, lehen-hezkuntzako ikastetxeetan ez dira gai horretan sartu.

Oro har, aplikatzen den eredu European Foundation for Quality Management (EFQM) delakora hurbiltzen da. Eredu hori, oso baloratua dena, bereziki ikastetxeen beharretara egokitu dute hezkuntzarekin lotutako organismoek. Normalean, ikastetxeek kalitatea sustatzen duten erakundeekin lankidetzak estuan jarduten dute.

Ikastetxeetako zuzendaritzak dira prozesua gidatuko dutenak. Bertako arduradunak benetako konpromisoa dute (berariazko trebakuntza jasotzen dute) eta irakasleria modu desberdinetera sensibilizatzen saiatzen dira. Sentsibilizatzeko modu horien artean trebakuntza-baliabideen aplikazioa dago. Ikastetxearen ohiko antolamendu-egiturak kontuan hartu gabe, kalitate-arduradunaren irudia finkatuz doa. Horren guztiaren bidez, kalitatea ebaluatzeko praktika horiekiko erresistentzia naturala gaindituz doa, pixkanaka irakasleriaren inplikazioa areagotu doan bitartean. Ikastetxeetan, irakasleriaren artean "hobekuntza-taldeak" antolatzen dira.

Ikastetxeek antolamendua hobetzeko eta beren helburuak hobeto betetzeko funtsezkoak diren alderdi gakoak zehaztu dituzte. Beren erantzukizuna izan da diseinua, prozedura zehaztea, balioztatzea eta aplikatzea. Ikastetxe batzuen eta besteen arteko diferentziak, publikoak nahiz hitzartuak izan, handiak izan daitezke, zerbitzuaren kalitatea hobetzera zuzendutako ebaluazio-substratu beraren gainean.

Ikastetxeek atzematen dute kalitate-baliabide horrekin lanean jartzeak baduela eraginik emaitzetan. %42k irizten du "zerbait" hobetu dela, %50ak "dezena" hobetu dela, eta %8k hobekuntza "handia" izan dela. Gutxi gorabeherako balorazioan ez dago desberdintasunik ikastetxe publiko eta hitzartuen artean.

Zenbait ikastetxeek kalitatearen kanpoko ikuskapenerako saltoa eman dute. Zentzu horretan, zenbait Kalitatearen Nafarroako Fundazioak ematen dituen sarira aurkeztu dira. Lau ikastetxe publikok eta hitzartutako beste batek ISO 9000 ziurtagiria lortzeko asmoa adierazi dute.

Eskola-kontseiluak "kalitate", "ebaluazio" eta "emaitza" kontzeptuek irakaskuntza-jardueraren testuinguruan, iriztiak laburtzeko garaian, duten eduki ez oso zehaztuari buruzko zehaztasunen bat egiten du. Era berean, egingarri lanari dagokionez Eskola-kontseiluak egiten duen balorazioa "oso positiboa" da, eta zehazki:

- Zuzendaritza-taldeek hobekuntza jarraituaren kultura sartzearan alde egiten duten apustua.
- Taldekako lan-praktikak, lankidetzak, negoziazioa, prozesuen berrikuspena, banakako lana berrikusteko estimulua,...
- Ebaluazioa diagnosi-elementu gisa hartzea.

Hori guztia kontuan hartuta, Kontseiluak ondoko hiru proposatzen du:

- Ikastetxeetan kalitatea eta ebaluazioaren kultura sustatzeko helburuarekin beharrezkoak diren neurriak hartzea (Nafarroako ikastetxeen arteko topaketak antolatzea, gurasoei eta ikasleekin topaketak, hezkuntza-komunitate bereko kide gisa,...)
- Jarraibide orokor batzuk zehaztea
- Ikastetxeetako ekimenak jasotzea eta gauzatzea
- Hobekuntza-prozesu horiek garatu ahal izateko laguntza teknikoa ematea.
- Praktikan jartzeko eta jarraipena egiteko beharrezkoak diren bitartekoez hornitzea (irakasleriaren trebakuntza eta abar).
- Hobekuntza-planetan pixkanaka hezkuntza-komunitate osoa inplikatzeko: gurasoak, ikasleak eta irakasleak.
- Ahal den neurrian hobekuntza-planen eremua zabaltzea: aniztasun osoarekiko arreta, ikastetxeak beren ingurunera irekitzea komunitatearekiko lankidetzak programen bidez, gizarte-zerbitzuak eta osasun-zerbitzuak bezalako erakundeekiko eta tokiko administrazioekiko koordinazioa,...

Beharrezkotzat jotzen da, halaber, hobekuntzarako plan eta prozesuen kultura horren hezkuntza-sistamarako moldaketan sakontzea, eta Hezkuntza-administrazioa bera eta horren organismoak izan daitezela sistema horiek ikastetxeetan ezartze eta garatzen direla ikuskatzearen erantzuleak.

ESTEE-EILASEk irizpenaren aldeko boto partikular bat aurkeztu zuen. Testu osoa Kontseiluaren web orrialdean aurki daiteke:

www.pnte.cfnavarra.es/consejo.escolar.navarra

LOCE LEGEARI BURUZKO FUNTSEZKO HIRU PUNTU

Lege oron arautzen den gai-multzoko konplexutik, interesgarria iruditzen zait Legearen testuinguruan kalitatea terminoak gordetzen duen zentzua argitzen lagun gaitzaketan LOCEko hiru alderdi nabarmentzea.

1. Kalitatea edo ebaluazioa

Azkeneko hamarraldietan kalitatea baliabide material edo giza baliabide gehiago lortu nahi zen uneoro erabiltzen zen hitz talismana da. Ikastetxe baterako kalitatea kili-kolo jartzen zen irakasle bat gehiago ematen ez zitzaienean edo punta-puntako fotokopiagailu bat lortzen ez bazen. Egun, kalitatea hitza zehaztapen- eta zorroz-



tasun-eremuetan sartu da. Kalitate-ziurtagiriak enpresa-eremuan, eta lehiakortasun gogor eta hutseko eremuetan jaio ziren. Gaur bete-betean sartu dira ikastetxe askotan. Kalitate-ziurtagiriak hezkuntza-eraginkortasunaren eta gizarte-prestigioaren adierazle bilakatu dira.

LOCE ez da eredu horien alde joan. Hala ere, ez dio esplizituki prozesuen hobekuntzari erdeinu egiten. Zalantzarik gabe, bere apustua emaitzetara eta ebaluazioan emaitzak kontrolatzera xedatzen da.

Arrazoen azalpenean legisladoreak neurrien bigarren ardatza aipatzen duenean, honoko hau dio espresuki: "Hezkuntza-sistema modu irekiagoan emaitzetara orientatu behar da, kalitate-efortzuaren eta -hobekuntzaren kultura finkatzea ikasleen, irakasleen, ikastetxeen eta, oro har, sistemaren ebaluazio-prozesuen areagotzera lotuta baitago. Modu horretara, batzuk zein besteek behar bezala orientatu ditzakete hobekuntza-prozesuak." Legisladoreak argi uzten du kalitateak emaitzekin duela zerikusia, eta emaitza ebaluazio objektibo bat direla. Baina ez da horretara mugatzen. LOCEk printzipio- eta helburu-aniztasuna eskaintzen du, eta horrek kalitatea aberasten du. Hala ere, arretaz aztertzen baditugu, guztiak, bai emaitzak eta ebaluazioa ere, helburu komun bakarraren zerbitzura jarritako printzipio eta helburu instrumentalak direla konturatuko gara. Helburu bakar hori ondoko hau da: ikasle partikular bakoitzari dagokion hezkuntza-erantzunean asmatzea.

2. Trebakuntza integrala

Ohikoa zen integral adjektiboa hezkuntza hitzera lotuta agertzea, irakasleen eta ikastetxeen lana irakastera bakarrik ez dela mugatzen adierazi nahiez. Horrez gain, ikastetxearen eta gelaren eguneroko lanean, kontuan hartu beharko litzateke ikastetxeko Hezkuntza-proiektuan onartuak izan ziren ohitura edo balio positibo horiek barneratzea.

Erantzukizuna ez da izpirituaren nahiz kontzientziaren inguruko gaietatik gertuen dauden materia edo alor horietara bakarrik mugatzen, baizik eta gai orotara eta ikastetxeko bizitzar. Argi dago guztiak hezi edo deshezi dezakeela. Proiektu komun batetan parte hartzeak, patioan, gelan edo korridorean, eskola-jardueretan nahi eskolaz kanpoko jardueretan, giza prestakuntzaren hobekuntza sustatu behar du; hots, ikaslearen beraren eta bere garaikideen ongizaterako prestakuntza integrala bultzatu behar da.

LOGSEk, halaber, zenbait balio agintzen zituen. LOCEk urrats bat gehiago ematen du. Balioetan hezte aurre-

tiazko eskakizun bat edo "sine qua non" baldintza bat da. Elkarbizitzarako eta ikastetarako egokia den klimarik gabe, eskola-jarduna ez da behar bezala burutu ahal izango. Ezta erantzukizuna eta esfortzua hezkuntza-prozesuko oinarritzko elementu gisa hartzen ez badira ere -LOCEk dio "esfortzurik gabe ez dago ikaskuntzarik". Eta ez hezkuntza-komunitatea osatzen duten kide bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak bermatuko dituen diziplinarik gabe. Beharrezkoa da taldean lan egiten ikastea, sormen- eta ekintzaile-sena lanitza, ezagutzeko grina eta kuriositatea bizirik mantentzea bizitza osoan gurekin edukiko dugun ezaugarri gisa, etab. Horrek guztiak eskola-giroan egon beharko luke, arnasten dugun airea bezala.

LOCEn, gainera, ikasle bakoitzaren pertsonalitatea, aurpegi indibidualen nahiz sozialean, eratzen doazen balioak kultibatzea agintzen du: askatasun indibiduala balioztatzea erantzukizun soziala alde batera utzi gabe, diskriminazio-mota orotatik ihes egitea eta boluntarioen mundu aberatsarekin lankidetzan solidaritatea praktikatzea. Azken buruan, gaitasun eta potentzialtasun pertsonalak kultibatzea, eta besteen mundura irekitzea, gertukoa nahiz urrunekoa izan.

3. Ekitatea eta kalitatea ikasle guzti-guztientzat.

Hezkuntzari buruzko testu legeletan "guzti-guztientzat" irakurtzen dugun bakoitzean Comeniusen sententzia datorkigu gogora: "omnia omnibus omnino". LOCEk ere erabiltzen du; baina "omnia omnino" delakoaren erronkari aurre egin behar dionean hasierako zentzuitik aldentu egiten da, eta ondoko hau proposatzen du: LOGSEren aurkakoa den erantzun bat ez bada ere, bada irtenbide desberdina. Guztientzat lortu behar da kalitatezko hezkuntza bat. 10. orrialdean dio "Lege honen funtsezko helburua da guztientzako kalitatezko hezkuntza bat lortzea. Helburu horren erroak berez gure tradizio europarreko balio humanistetan aurkitzen dira." Kalitatea ez da orori berdina ematea; bakoitzari bere ahalmenaren arabera ematea baizik, eta aukera oro bideragarri egitea, gizarte-egoerak edo mota guztietako diskriminazioak hori eragotzi edo zapuztu gabe. Naturak ematen ez duena ez du Salamancak betetzen. Naturak bai ematen duena, berriz, botere publikoek eta gizarteak bermatu egin behar du. Hori da hezkuntza-sistemaren kalitatearen printzipioa.

Ekitatea, pertsonalitatearen garapen oso gisa eta kalitatezko aukera-berdintasun baten berme gisa ulertuta, hezkuntzaren bidez, jadanik ez da ideia politiko igualitarista bat. Orain bilakatu egin da, eta inor bidean zapuztuta ez geratzearen alde borrokatzen duen antzinako esanahi humanista berreskuratu du. Ekitateak bakoitzari berea, ez berdina, ematea exijitzen du. Hau da, bakoitzak izan ahal duenaren eta behar duenaren osotasunera iristea. Pertsonalitatearen garapen osora iristea, hain zuzen ere kalitatezko baldintza-berdintasun bat bermatzeko.

Iruñan, 2003ko irailaren 11n

Santiago Arellano Hernández

Pertsonak

GUILLERMO HERRERO MATÉ.

-BOST URTE NAFARROAKO ESKOLA-KONTSEILUAN-

Lehendakari gisa izan dudana eta erantzukizunarekin amaituta, Nafarroako Eskola-kontseiluan bost urte iragan ondoren, nire lanpostuan ondorengo denak, Javier Marcotegio jaunak, nire iritziak laburtzen dituen artikulu bat idaztea eskatu dit.



Guillermo Herrero Maté Jr.

Gonbidapena eskertu eta onartu egiten dut, agian lan gehienetan nolabaiteko protagonista sentitzeak suposatzen duen partzialtasun logikoan eror naitkeela pentsa daitekeen arren.

Lehenik eta behin, eta hertsiki pertsonala den ikuspuntu batetatik, unean, Nafarroan nahiz Nafarroatik kanpo, dauden hezkuntza-gai garrantzitsuenen azterketan eta z a g u m e n d u a n sakontzeko nahikoa denbora eta aukera izan dudala adierazi nahi nuke. Prozesu horrek, nire iritiz, hainbat pertsonen Foru Erkidegoan garatzen dugun irakaskuntza-lana baloratzen lagundu dit.

Bigarrenik, Nafarroako gizartean eta gainerako erkidego espainiarretan ezagutzera emateko erronkarekin bete dugula iruditzen zait, gutxienez hezkuntza-eremuan eta horren inguruan. Era berean, partaidetzako, askatasuneko eta mugarik gabeko eztabaidako giro onargarri bat sortzea lortu da, horrekin Kontseilu hau sortzen zuen Foru Legearen eta LOGSE beraren aurreikuspenak betetz. Horri dagokionez, Estatuko nahiz Autonomiako bilera, hitzaldi nahiz konferentziatan parte hartu da, hiru hilabete oro argitaratzen den aldizkari bat editatu da, 7000 bisita jaso dituen web orrialde xume bat abiarazi da, eta urtez urte heziketan interesatuta dauden pertsona kopuru handi bat bertaratzen da urteroko gure Jardunaldietara.

Hirugarrenik, Nafarroako Eskola-kontseilua, bere txosten eta jardunaldietan, Nafarroako hezkuntzarekin lotutako gai interesgarri nagusiez arduratu da. Kasu batzuetan, aitzindariak izan dira gainerako Eskola-kontseilu Autonomikoen aldean. Adibidez, inmigrazioaren eta kultura anitzeko eskolaren kasuan. Giza zientziek ikasketaplanetan duten presentzia, diziplina, eta ikastetxeetako elkarbizitza bezalako gaiak ere arduratu gara. XXI. mendeko irakasleriaren irebakuntza eta funtzioa, aniztasunean arreta jartzearen erronka, edo ikastetxeetako bizitzan familiak dute parte-hartzearen garrantzia eta funtzioa bezalako gaiak ere landu dira. Gai garrantzitsu horiei buruz dagozkien argitalpenak egin dira.

Gonbidapena eskertu eta onartu egiten dut, agian lan gehienetan nolabaiteko protagonista sentitzeak suposatzen duen partzialtasun logikoan eror naitkeela pentsa daitekeen arren.

Lehenik eta behin, eta hertsiki pertsonala den ikuspuntu batetatik, unean, Nafarroan nahiz Nafarroatik kanpo, dauden hezkuntza-gai garrantzitsuenen azterketan eta z a g u m e n d u a n sakontzeko nahikoa denbora eta aukera izan dudala adierazi nahi nuke. Prozesu horrek, nire iritiz, hainbat pertsonen Foru Erkidegoan garatzen dugun irakaskuntza-lana baloratzen lagundu dit.

kuntza-gai garrantzitsuei buruzko Lege, Dekretu eta Agindu oro onartu aurretik derrigorrez eman behar dituen irizpen eta txostenen garrantzia azpimarratu nahiko nuke. Eztabaida aberats eta luze bat izan zuten horiek gogoraraziko ditut: eskola-orientaziorako zerbitzuaren berregituraketa, 0-3 urte bitarteko urratsa ezartzea eta garatzea (bide batez, oraindik argia ikusi ez duen dekretua da), hizkuntza modernoan irakaskuntza zabalitzea, ikastetxeak bereiztea -euskara/gaztelera, eta profesionala/batxilergoa-, CP San Franciscoren lekualdaketa,...

Eta, azkenik, Nafarroako Hezkuntza-sistemaren gainean egin diren LAU txostenen garrantzia nabarmenduko dut. Txosten horiek 1998-1999 ikasturteari (lehenengoa, eta, gainera, bilduma-izaera izan zuena, 1990. urtetik hezkuntzak izan zuen bilakaera jasotzen bai-tzuen) eta 1999-2000, 2000-2001, eta 2001-2002 ikasturteei dagozkie. Helburu horrekin garatu zirenez, gure hezkuntza-eskaintzaren argazki, edo erradiografia, bat direla pentsatu nahiko nuke. Gainera, datuekin batera doazen balorazioen bidez Nafarroako biztanleriak gai garrantzitsu horiei buruz duen iritzia ezagutarazten dute. Era berean, mota orotako programak eta irakaskuntza-ekintzak deskribatzen dira. Aipatutako txostenek, horrez gain, "boto partikular" deitzen diren horien bidez, babes nahikoa edo gehiengo babesa lortu ez zuten talde eta erakunde horien iritzia eta proposamenak jasotzen dituzte. Izan ere, nire iritiz, gure eskola-komunitatearen sentimenduaren zati dira horiek ere.

Gabezien eta berehala aurre egin ez zitzaizkien arazoaren eremuan, egoitza eta instalazioekin, eta aurrekontuarekin lotutako gaiez gain -espero dut horiek berehala konpontzea-, ulertzen dut nire balorazioa da ez dela guztiz lortu hezkuntza-gaietan baimendutako ahots gisa entzunik izatea, bai Eskola-kontseiluaren talde desberdinen aldetik eta bai hezkuntza-administrazioaren aldetik ere. Izan ere, askotan aldatu ezin daitezkeen aurretiazko jarrerekin geldiarazi gaituzte. Jarrera horiek freskotasuna kendu dute, eta imajinaziodun proposamenak oztopatu dituzte. Adibidez, nire iritiz erakundearentzat negatiboa izan da Hezkuntza Kalitatearen Lege Organiko berriari edo ikasleriaren betebeharrak eta esku-bideei buruzko txostenik igorri ezin izanak. Ez diot nahi errua inori egotzi nahi. Izatekotan, Lehendakariaren abilezia faltari egotzi behar baitzaio. Hala ere, 1998. urtetik 2003. urteraino asko hobetu da, eta ziur nago hobetzen jarraituko dela. Erakunde honen funtzionamenduak aukera garrantzitsu bat izango du hemendik gutxira, Nafarroan aipatutako Kalitatearen Legea garatuko duten dekretu eta agindu desberdinak eztabaidatuko baitira. Lege horrek, nire iritiz, gure Foru Erkidegoaren hezkuntza-egoera bikaina mugatu edo murriztu dezake.

Azkenik, nire ondorengoari eskerrak ematen dizkiot, eta, halaber, desio diot nik jarduteko eduki dudana autonomia eta askatasuna, eta Nafarroako agintarietatik, Hezkuntza Saileko zerbitzu desberdinetako arduradunetatik eta, batez ere, Kontseiluko funtzionario eta partaideetatik jaso dudana babesa izan dezala. Izan ere, azken horien oroipen ahaztezina gordeko dut.

ertso

ZIZUR NAGUSIKO BHILKO IKASLEAK: EURO-SCOLA: interneten bidez jolastuz eta ikasiz.

Iaz "Euro-scola 2003" jokoa garatu zen, eta bertan Bigarren Hezkuntzako 14000 ikasle baino gehiagok parte hartu zuten.

Euro-scola lehiaketan sartzeko eta jolasteko Interneten bidezko sarbidea gauzatu behar da (www.euro-scola.com).



"Zizur Mayor" Ikastetxea

Europako Batasunarekin lotutako gai bati buruzko eza-gutzak eta gaitasunak frogatzen dituzten zenbait proba ebatzi behar dira. 2002ko edizioan hautatu zen gaia euroa eta euroa erabiltzen hasi diren herrialdeak izan zen. Azkeneko edizio honetan, probak Europako Batasunaren handitzearen ingurukoak izan ziren.

Parte-hartzaileek (ikastetxe edo institutu bereko hamar ikasle, irakasle batek koordinatuta) Europako Batasunaren sartzeko hautagai diren 13 herrialdeen geografiari, historiari, artistei eta abarri buruzko informazioa bilatu behar izan zuten, ia beti Internet bidez. Europako era-

kundeen funtzionamenduari buruzko informazioa ere ezagutu dute ikasleek.

Jarduerak, teknologia berrien eta, oso bereziki, Interneten erabilera eta ikaskuntza beharrezko egin dute.

Adibide zehatz batzuk emango ditugu jarraian: batzutan, osatu gabe zegoen argazki batetik, monumentu poloniar bat edo pertsonaia famatu hungariar bat eza-gutu behar zen; bestetan, "urkatuaren jokora" jolastu behar zen musikari bulgariarren baten, Letoniako hiri baten, Errumaniako pertsonaia historiko baten eta abarren izena lortzeko; Europako Parlamentuaren edo Batzordearen funtzioei buruzko galdera zuzenak. Konplexutasun handiagoko probak ere bazeuden: Europako Historian nolabait garrantzitsuak izan ziren gertaerak aipatzen zituzten enigmak ebaztea, adibidez.

Parte hartu zuten taldeei dagokienez, 1.391 taldeetatik 1.002 Espainiako autonomia erkidegoetakoak ziren (13 bakarrik Nafarroakoak), eta gainerako 389ak, berriz, Europako beste herrialdeetakoak.

Sarien artean, Autonomia Erkidego bakoitzeko sailkatu hoberenentzako Estrasburgora bidaia dago. Nafarroan, adibidez, talde saritua Zizur Nagusiko BHI izan zen. Azkenaurreko edizioan, Burlatako askatasuna BHiko taldeak Nafarroako taldeen artean lehenengo izatea lortzeaz gain, Espainiako eta Europako ehunka taldeen artean lehenengo postua lortu zuten.

Lehiaketa interesgarri horren ekimena Europako Parlamentuari dagokio. Parlamentuak, jokoaz gain, topaketa-, truke- eta lan-jardunaldi bat antolatzen du, Estrasburgon Europako Batasunako herrialde desberdinetako 600 ikasle baino gehiago bilduz.

Nafarroako ikasle-talde ugari jadanik bizi izan duten esperientzia hori da Zizur Nagusiko ikasleek pozez beteta biziko duten bidaiaren xedea.

gunk

HEZKUNTZAKO KONTSEILARIAREN AGURRA: LUIS CAMPOY JAUN TXIT ARGIA

Nafarroako Eskola-kontseilua, 1829ko Gorteen Legian sortutako Hezkuntzako Batzorde Gorenaren ondorengo bezala, 1997-1998 ikasturtean sortu zen. Ordutik hezkuntza hobetzearen eta Nafarroako gizartearen errealtatera moldatzearen aldeko lan handia egin du Kontseiluak.

Kontseilua kontsultarako eta partaidetzarako organo gorena da hezkuntzako programazio orokorrak eragiten dituen gizarte-sektore horientzat. Hori horrela, irakasle-riak, ikasle-riak, gurasoen elkarteek, ikaste-txeetako titu-larrek, antolatzaile sindikalek, irakasleak ez diren langi-leek, hezkuntza-eremuan prestigioa duten pertsonak, uni-bertsitateek, eta tokiko administrazio-ko nahiz hezkuntza-

administrazio-ko ordezkariak eztabai-datu ahal izateko eta Nafarroako hezkunt-zak "izan behar duen" horri buruzko ekarpen partikular eta legitimo-ak egiteko bide priba-legiatua da Kontsei-lua.

Eskola-kontseiluak gure Erkidegoko hez-kuntzarentzat berebizi-ko garrantzia duten gai-ri buruzko txoste-



Luis Campoy Zueco Jr.

gunk

nak eta irizpenak eman ditu. Era berean, aktiboki parte hartu du Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako Eskola-Kontseiluen Topaketetan. Topaketa horien artean azpimarragarria da 2000 urtean Iruñan egin zena. Bertan "Aniztasunarekiko arreta. Kultura anitzeko eskola" gaia jorratu zen.

Bestalde, arreta berezia eskaini behar diogu halaber Nafarroako hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko urteko txostenari. Izan ere, hezkuntza-komunitatearentzat erreferentziakoa den oinarritzko dokumentu bilakatu da.


Xede komun batetara zuzendutako hausnarketarako eta

eztabaidarako espazio pribilegiatu horrek ikastaro honetan urrats berri bati ekiten dio. Urrats berri horren hasiera bat dator legegaldi berriaren hasierarekin, eta beren agintaldia amaitu delako kide gehienen berrikuntzarekin.

HEZKUNTZA Espainiako Konstituzioak babesten duen oinarritzko eskubideetako bat denez, beharrezkoa da interes orokorra Kontseiluko kideen ikuspegi partikularren gainetik mantentzea. Hori da, zalantzarik gabe, Nafarroako gizarteak espero duena, eta nik, Hezkuntzako Kontseilari gisa, desio dudana.

HEZKUNTZA SAILAREN ORGANIGRAMA.

Uztailaren 15eko 233/2003 Foru Dekretuak onetsia (NAO, 91. zk., 2003ko uztailaren 16koa).



Joandako irailaren 25ean, Eskola-kontseiluaren eraketa bilkuran, Kontseiluko kide guztiei pertsonalki adierazi nien agurra eta ongietorria errepikatzeko helburuarekin, gizarte aldakor honek hezkuntza-administrazioari planteatzen dizkion erronka berriak onartzeko ilusioarekin, hitz labur hauek agur berri bat emateko eta lanerako hartzen dudak konpromisoa adierazteko balio izatea espero dut.

AZKENEKO IRIZPENAK:

- **"Hobekuntzarako Planak eta Proiektuak Nafarroako Ikastetxeetan, 2002-2003 ikasturtzari" buruzko 1/2003 IRIZPENA, Nafarroako Eskola-kontseiluak ekimen propioz egina.fifi**

Ale honetako "FOROA" atalean jasotzen da.

- **2/2003 IRIZPENA: Nafarroako Gobernuaren eta Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren arteko "Internet Eskolan" hitzarmenari buruzkoa.**

Nafarroako Eskola-kontseiluaren balorazioa:

Nafarroako Eskola-kontseiluaren iritziz oso egokia da, ikastetxe guztiek IKTen ustiapenerako azpiegitura egoki bat duten une honetan, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak lankidetzahitzarmen bat sinatzea. Hitzarmen horri esker, alde batekin, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Heziketa Profesionaleko, Batxilergoko eta atzerriko hizkuntzetarako edukiak jasotzen dituzten baliabide multimedialak, Internet bidez eskura daitezkeenak, sortu ahal izango dira; eta, bestetik, ikasleek, heziketa-urrats horietan guztietan baliabide horiek erabiltzen ikasi dezaten eta erabili ditzaten, irakasleak baliabide horiek eta IKTak oro har erabiltzeko trebakuntza eman ahal izango zaie.

- **3/2003 IRIZPENA, "Bigarren Hezkuntzako Institutuen irakaskuntza-koordinaziorako organo jakinen funtzionamendurako eta antolamendurako arauak" ezartzen dituen Foru Dekretuaren Proiektuari buruzkoa.**

I. IZENBURUA. Kontuan hartzekoak eta proposamenak.

Izenburu horrek Bigarren Hezkuntzako Institutuetako Koordinazio Didaktikoko Organoen eta Didaktikako Sailburuen funtzionamendu, izendapen eta erantzukizunen aldaketak jasotzen ditu.

Ados gaude Didaktikako sailen zehaztapenarekin, antolamenduarekin eta funtzioarekin lotutako artikuluetan adierazitakoekin.

Hala ere, egoki irizten diogu 5. artikuluan ezartzen denarekin lotutako proposamen bat aurkezteari. Artikulu horretan sailburuen izendapena jasotzen da.

Arrazoen azalpenean adierazten den bezala, Hezkuntza-administrazioak duen baldintzatzaile bakarra Kalitatearen Legeak ezartzen duena da, hots, Sailburua Katedratikoen Gorputzeko kide bat izan behar duela, horrelakorik egonez gero.

Dekretuaren proiektuak ezartzen duenak indarrean dagoen arauaren aldaketa substantziala suposatzen du. Indarrean dagoen arauak adierazten du, izendapenean Katedratikorik egongo ez balitz, Sailari entzun ondoren, Institutuko Zuzendariak hautatuko lukeela.

Dekretua egun idatzita dagoen bezala onartzen bada, izendapenerako irizpidea Gorputzeko antzintasuna hartuko da kontuan.

Hezkuntza saileko Ikuskaritza Teknikoko Zerbitzuak duela gutxi editatu duen azterketan, Sailburua hautatzekoan kontuan hartu beharko liratekeen irizpideei buruz galdetzean, erantzunak anitzak izan dira. Hala ere, nabarmena da ikastetxeetako zuzendariak antzintasuna ez dutela aipatu ere egiten. Sailburuek ematen dituzten erantzunen artean %12an bakarrik aipatzen da irizpide hori, eta irakasleriari galdetzen zaionean, berriz, %3ra murrizten da.

Bestalde, inork ez du zalantzarik, eta horrela jasotzen da Proiektuaren arrazoen azalpenean, Sailburuak Ikastetxeen bizitzako elementu oso garrantzitsua direla. Garrantzitsuak da, halaber, Koordinazio Pedagogikoko Batzordea. Batzorde hori Sailburuek osatzen dute. Adibide gisa, Sailburuak Proiektuan izango dituen funtzioei buruzko d) atalak duen berrikuntza ikusi dezakegu. Atal horrek dio Sailburuak "Programazio didaktikoa betetzea koordinatu eta exijitu behar duela, eta horren erantzule izan behar duela". Erantzule izatearen eta exijitzearen kontzeptuak ez dira agertzen indarrean dagoen KOAn.

Ez dirudi oso zentzuzkoa antzintasun soilaren eskuetan uztea gure ikastetxeen elementu zentralen antolamendua eta buruzagitza. Egokia dirudi Sail didaktiko bakoitzeko irakasleen iritzia kontuan hartzea; era berean ikastetxeetako zuzendaritzari ikastetxeen jardura eta Zuzendaritza-taldearen zuzentzeko ahalmena distorsionatuko duten izendapenak saihesteko nahikoa marjina utziz.

Goian adierazitakoari erantzunetan, hiru sektoreetan, irizpide berritzaile eta interesgarritzat hartzen duguna nahiko nabarmen ageri da. Irizpide hori "Buruzagitza-proiektuen" bidezko izendapenak egitea da. Konplikatuagoa bada ere, proposamenean irakasleen parte-hartzea, proiektuen aurkezpene eta Ikastetxeetako zuzendaritzentzako maniobra-marjina batuko lituzkeen mekanismoren bat artikulatu daitekeela uste dugu.

Egokia dirudi, halaber, lanpostu horiek ebaluatzeko mekanismoak artikulatzea.

Eskola-kontseiluaren ustez komenigarriagoa da indarrean dagoen KOAn adierazitakoa mantentzea. Bertan, Zuzendariaren hautaketaren eta irakasleriaren partaidetza batzen dira. Edo, behintzat, antzintasuna ez da izendapenaren oinarri izango den irizpidea.

II. IZENBURUA. Kontuan hartzekoak eta proposamenak.

Izenburu horrek barruko antolamenduari eta aipatzen diren BHlek DBHlekin dituzten harremanei helitzen die.

DBHlek aipatutako BHlekin dituzten harremanei dagokienez, proiektuaren artikulatuak horien mendekotasuna mantentzen eta indartzen du 11.2 eta 11.3 artikuluetan.

Indarrean dauden mekanismoekin, BHI eta DBHlen arteko koordinazioa ez da beti nahi izan bezala garatu. Beraz, koordinazio-sistema egokitzea komeni da. DBHltan gaur egun arte zeuden bi eremuen ordezt, kome-nigarria dirudi hobeto zehaztutako koordinazio-eremuak ezartzea. Gainera, koordinazio-eremu horiek beren lana meritu gisa aitortua ikusi behar duten eta lan hori gau-zatzeagatik soldata bat jaso behar duten arduradunak izan behar dituzte.

Hori horrela, Nafarroako Eskola-kontseiluak Dekretuko proiektuan ezartzen diren koordinazio-eremuez gain beste bi sortzea iradokitzen du. Horrek, dudarik gabe, koordinazio-maila hobeto doitzen lagunduko du. Eremu horiek ondoko hauek izan daitezke:

- Gaztelera eta Literatura; Euskara eta Literatura; Kultura Klasikoa; Latina.
- Atzerriko hizkuntzak.
- Geografia eta Historia; Musika; Gizartea, Kultura eta Elijioa; Etika.
- Natur zientziak; Biologia eta Geologia; Fisika eta Kimika; Teknologia; Heziketa Fisikoa.
- Matematikak, Heziketa Plastikoa.

II. IZENBURUA. 150/96 Foru Dekretuak sortutako DBHlak.

Nafarroako Eskola-kontseiluak Dekretuaren Proiektuan zehazten diren Urratseko Taldeak ezartzea egokia dela uste du.

- 4/2003 IRIZPIDEA, "Hizkuntzen irakaskun-tza-ikaskuntzako modalitateak arautzen dituen Foru Dekretuaren" proiektuari buruzkoa.

Nafarroako Eskola-batzordearen iradokizunak eta ohar-rak:

Oso positiboki baloratu dugu, hezkuntzaren espazio europar horretarako bidean, Nafarroako hezkuntza-sistemara bi modalita-te linguistiko berri sartzea. Horiek beste hizkuntza komunitario bat ikasterako garaian jauzi kualitatibo garrantzitsu bat suposatzen dute. Era berean, helburu horretara iristeko, epe luzera bada ere, beharrezkoa da lanak bideratzen joatea.

Zentzu berean, **positiboki baloratzen dugu** izaera

orokorrezt ikastetxe publikoetan ezarriko den **hizkun-tza komunitarioa indartzea**. Neurri hori hitzartuta-ko ikastetxeetara hedatzea komeniko litzake.

Era berean, Foru dekretuaren zirriborroko 27. artikuluko bigarren paragrafoa aldatzea gomendatzen dugu. Horrela, paragrafo amaiera ondoko hau gehitu beharko litzateke: "edo Atzerriko Hizkuntzatan Espezializatuta dagoen Irakaslea".

Bestalde, **eredu linguistiko bat ezartzea bai-mentzeka beharrezkoa den gutxieneko ikasle-kopurua malgutasunez erabiltzea gomenda-tzen dugu**. Izan ere, kontuan hartu behar da zenbait zonatan hogeik ikasleko kopurua oso altua da duten biz-tanleriarentzat.

Azkenik, 9. artikuluan eta ondorengoetan "beste" hiz-kuntza komunitarioen ikaskuntzaz hitz egitea komeniko litzake, beharrezkoak diren idazketa-aldaketekin.

Arazo formalak.-

Dekretuko Aldi Baterako Lehenengo Xedapenean aipa-tzen den artikulua 20.3 artikulua izan behar du, eta ez 4.3. artikulua.

Era berean, ez dago Aldi Baterako Bigarren Xedapenik, eta, ondoriozt, hirugarren izena duena aldatu egin behar da.

Foru Dekretuko 5. artikulua 4. artikulua esan behar du, eta ez 7.

- 5/2003 IRIZPENA, "Imarkoainen Energia Berriztagarrien Goi-mailako Heziketa Profesionaleko Ikastetxe Integratu bat sortzen duen eta arautzen duen Foru Dekretuaren Proiektuari" buruzkoa.

Nafarroako Eskola-kontseiluaren iradokizunak eta oha-rak:

Nafarroako Eskola-kontseiluak **positiboki baloratzen du Imarkoainen Energia Berriztagarrien Goi-mailako Heziketa Profesionaleko Ikastetxe Integratu bat sortzea**. Izan ere, Foru Erkidegoa ai-tzindaria izango da ikastetxe horren ezarpenean, eta, gainera, ikastetxe horrek existitzen den eskariari eran-tzungo dio eta Gure Autonomia Erkidegoko garapen produktiboa sustatuko da.

Eskola-kontseilu honek esleitzen zaizkion funtzioak posi-tiboak direla uste du, eta horiek egun existitzen diren eta etorkizunean sor daitezkeen Ikastetxe Integratuetara hedatzea komenigarria izango litzakeela irizten du.

(Testu osoak Nafarroako Eskola-kontseiluaren web orrial-dean kontsultatu daitezke).

www.pnte.cfnavarra.es/consejo.escolar.navarra

De

editor

AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO ETA ESTATU-KO ESKOLA-KONTSEILUEN XIV. TOPAKETEN ONDORIOEN laburpena. Salamancan, 2003ko maiatzean.

"Inmigrazioa eta hezkuntza. Hezkuntza-komunitatearen esku-hartzea"

1. zatia (Bigarren zatia hurrengo alean argitaratuko da).
Oharra: XIV. Topaketetako eta Nafarroako Eskola-kontseiluak aurkeztutako txostenaren Ondorioen testu osoa gure web orrialdean kontsultatu daiteke: www.pnte.cfnavarra.es/consejo.escolar.navarra

Emigrazioak aldaketa demografiko handiak eragiten ditu. Aldaketa horien ondorioz, Espainia osoaren nahiz Espainia osatzen duten Autonomia Erkidego guztien garapen sozial eta kulturak erronka garrantzitsuei aurre egin behar die. Horri dagokionez, geroz eta garrantzitsuagoa da gizarte zuzen eta solidarioago bat eraikitzea ahalbidetuko duen aniztasun kultural bat onartzea eta orientatzea. Hori dela eta, hobe-kuntzarako neurri oro ondoko hauetan oinarritu beharko da: alde batetik, aukera-berdintasun unibertsal batetan; eta, bestetik, interkulturaltasuna. Interkulturaltasun horretan, kultura desberdinen arteko errespetua eta elkarriketa Giza Eskubideen barruan gauzatzen da.

Argi dago izaera interkultural hori hezkuntzan barne hartzeak ondorio oso garrantzitsuak izango dituela inplikatuak pertsona ororen mentalitatean, eskolaren antolamenduan eta metodologian, eta curriculumean oro har. Baina hori ezingo da lortu beste gizarte-erakundeekin eta Administrazioekin lankidetzan estuan jarduten ez bada. Nabarmendu behar da, halaber, horrela jardunez, eskolak guztiz beteko duela ikaskuntza, hazkuntza, eta elkarrekintza-mota ororen toki pribilegiatu izatearen funtzioa. Justizia, berdintasuna, elkarbizitza eta elkartasuna bezalako balioetan hezten lagunduko duen toki bat. Haurrei pertsona guztiek beren eskubide berdinak dituztela ulertarazteko eta betebeharraren zentzua modu

egokian ulertarazteko ikuskerak eta jarrerak barne-hartzen lagunduko dien toki bat.

Hezkuntzak bere protagonismoa berreskuratu behar du gizarte berdino eta demokratikoagoak eraikitzea garrantzian balioen igorpenean. Hezkuntzarako eskubidea oinarriko eskubide bat da, eta, beraz, egungo Atzerriartasunaren legeak ikasle atzerriartari bermatu beharko dio edozein diskriminazio-mota debekatuko dela, eta guztien berdintasun soziala babestuko dela.

Kalitatearen legeari dagokionez, Hezkuntza, Kultura eta Kirolen Ministerioari eskatzen diogu bere garapenean ondoko hauek kontuan har ditzala: desberdintasunen konpentsazioa, bestea aberastasun pertsonal eta sozialaren iturri gisa hartzea eta benetako integrazioaren babes irmoa.

Elkarbizitza horren aldeko konpromiso hori gidatu beharko luketen printzipio orokorren artean ondoko hauek daude:

• Gizaki guztien askatasuna eta berdintasuna

Gure zibilizazioarentzako oinarriko balio bat da, eta obligazio moral eta legal saihestezin bat da horren arabera hezte.

• Aniztasuna onartzea

Berdintasunaren aurretiazko errekonozimendua da. Zentzu horretan, aniztasuna onartzea eta desberdintasuna aurkako terminoak dira. Horrela, desberdintasuna, aniztasuna onartzearen ondorio natural izateki urrun, gure gizarteetan dagoen desoreka ororen emaitza da.

• Interkulturaltasuna

Aniztasun kulturalak elkarrenganako aberastasun-iturri gisa, gizartearentzako aurrerabide gisa eta elkarbizitzarako proiektu komun batetarako ekarpen gisa baloratua izan behar du. Jarduketan ezaugarriak kontuan harturik, nabarmendu beharreko berariazko printzipioen artean ondoko hauek daude:

• Normalizazioa arretan

Zenbait emigrante-talde dituzten beharrak biztanleria osoarentzako dauden zerbitzuen eremutik artatuko dira. Horrela, egitura paraleloak sortzea saihestuko da. Printzipio hori eta beharrezkoak izango liratekeen berariazko zerbitzuak artikulatzea ez dira bateraezinak.

• Globaltasuna

Aurreikusten diren ekintzak jarduketaren eremu guztietatik gauzatu behar dira, biztanleria guztia kontuan hartuz, eta sektore orotara zuzendutako neurriak bilduz.

s

eskolara